



40 ordutan euskaraz

Larunbat eta igandean euskara izan zen Lasarte-Orian protagonista. 40 ordutan denetarikoko ekitaldiak burutu ziren Okendo plazan jarri zen oholtza ikusgarrian.

Larunbat goizeko 8etan eman zioten hasiera Euskararen 7. maratoniari Ana Urchuegia, alka-teak, Ricardo Ortega Euskara batzordeburuak eta Mari Jose Eizmendi Tkun-eko lehenda-

kariak, eta ordutik zortzikoteak hainbat herritarren laguntzarekin denetarikoko programazioari eutsi zioten Okendo inguruan.

Haur, gazte edo zahar denentzako ekitaldiak izan ziren 40 ordutan zehar. Larunbatean piratak hartu zuten oholtza ingurua eta txikiak ez zuten atsedenik izan. Arratsaldean, Takolo, Porrotx eta Mari Mototsek ikuskizun bikaina eskaini zuten. Une horretan bete bete izan zen plaza. Afalostean gau erotikoa exoti-

ko ere bilakatu zen. Landaberri Antzerki Taldekoek ikuskizun berezi eta bero beroa prestatu zuten bildu zirenentzat. Bero-keta aparatu erotikoen erakustaldiarekin hasi eta aerobic bero bero batekin amaitu zen. Ondoren, saskibaloj jokalaria ohien modako desfile sexiak tenperatura igo zuten termometroak hautsi arte. Gaueko hotzari aurre egiteko moduko ikuskizuna izan zen.

Lasarte-Oriako bikotekako lehen Bertso Pinalak ez zuen

berotasun, pikardia eta umorearen faltarik izan, ikusleen gozamenerako eta ondoren gau erotiko-exotikoak segi zuen, nesken eta mutilen streaptease eta guzti.

Dantzariak, pazifikoko eta arabiako gerri mugimendu eta dantza bereziak ekarri zituzten. Ondoren, umorearentzat tartea izan zen: sabel dantza Isabelen dantza bihurtu zen. Mihiluze erotikoa luuuuze luuuuze joan zen parte hartzaileek ez zutelako hizkuntz erotikorekin asmatu.

Igandean ere hainbat ikuski-zunetaz gozatzeko aukera izan zen eta errematea bikaina izan zen, Erketz, Alboka abesbatza eta Zero-Sette akordeoien orkestaren emanaldiarekin.

Tartean kirol erronkak, lehiaketak, antzerkia, dantza, musika, otorduak, dastaketak... denetarik izan zen 40 ordutan. Ehundaka lasarte-oriarrek parte hartu zuten. Denak euskarari eta bere erabilerari bultzadako bat emanaz, beti ere, tonu umoretsuan. •



Semblante
Andaluz
elkarteko Aste
Kulturala amaitu
da /7

ALBISTEA ■ 2

Udalak
aparkaleku
berrien gainean
inkesta egin du,
erantzun handirik
ez du izan



Gazteria eta
Festetako sailak
hitzarmena sinatu
du Xpression Kultur
Elkartearekin /2

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA,
- KAMAMILA, MENTA,
- SAGARRA, ANIXA,
- MAKILGOXO, ROOIBOS,
- e.a....

KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Beti
euskararekin!

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Doako kontzertuak eskainiko dituzte kultur etxeko kafetegian

■ Udalak eta Xpressionek kultur etxeko kafetegia dinamizatzeko hitzarmena sinatu dute

Lasarte-Oriako Gazteria eta Festetako sailak hitzarmena sinatu du Xpression kultur elkartearekin Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian kontzertuak eskaintzeko. Honen bidez musika estilo askotariko taldeek bisitatuko dute udalerria, ostiraletan hamabost egunero. Herriko taldeek ere aukera izango dute bertan jotzeko. Ekimen berria urriaren 24an hasiko da, arratsaldeko 20:00etan Roberto Yaben-en kontzertuarekin.

Xpression kultur elkarteak eta Gazteria eta Festetako sailak lasarteoriarrei aisialdirako aukera berri bat eskaintzeko asmoz sinatu dute hitzarmena. Baina, Gazteria eta Festetako sailak harago joan nahi du bere ekintzekin solidarioa izateko aukera eskainiz. Hori dela eta, Udalak aprobetxatuko du kultur etxeko kafetegiko zerbitzua doan uzteko udalerriko irabazi asmorik gabeko taldeei. Modu horretan, beren gizarte xedeetarako irabazi bat lortzeko aukera izango dute taldeek, Udaletik helarazi dutenez.

Saileko lehendakaria den Jesús María Zaballosen nahia izan da lehen taldea Lasarte-Ursuibil Institutuko ikasleak izatea. Bere ustez, "ikasturte amaierako bidaierako irabazi bat lortzeko laguntzeko modua da, eta horrela erabakiak eta ardurak hartzen hasi-



Lehenago ere izan dira kontzertuak kulturetxeko kafetegian. Irudian Barrenak Astinduz ekitaldiko batukada.

ko dira", honen harira, "familiatiko ekonomia laguntzeko modua ere bada", gaineratu du.

Doako saioak

Datorren urriaren 24tik hasi eta abendura arte, hitzordu musikalak hamabostero izango dira 20:00etan, kultur etxeko kafetegian. Doako saioak izango dira eta edonori

irekiak. Zaballosek azaldu duenez, "ez ditugu talde eza-guneren kontzertu handiak bakarrik egin nahi, baizik eta aukera eman nahi diegu baita ere musikaren munduan hasten diren taldeei, beren lehenengo pausotara lagunduz".

Urriaren 24an emango zaio hasiera Lasarte-Oriako Kultur Etxeko programazioari Urrietako Roberto Yaben gita-

rrajole eta bakarlariak eskainiko duen kontzertuarekin.

Azoan bi kontzertu izango dira: hilaren 7an ostirala, Donostiako Rouge taldearen Rock eta Power pop doinuak dastatzeko aukera izango da eta hilaren 21ean, ostirala, Underneed herriko pop rock taldearenak.

Abenduaren 5ean herriko Makulu Ken afro eta funk tal-



Roberto Yaben urriaren 24an joko du.

dearen txanda izango da eta abenduaren 19an aldiz, The Billie Jeans Donostiako disco, funk eta reggae taldearena.

Xpression!!! zirkuituaren arduradunek adierazi digutenez, egitasmo honen helburua zera da "espazioak bilatzea musikari ez profesionalizatuak eta aldi berean jendeari musika alternatiboak gerturatzeko, formatu txiki-ertaineko kontzertuak normalizatzeko eta doan eskainiz".

Lasarte-Oriako Udal lehena izan da Zirkuituan integratzen baina hurrengo hilabateetan beste 10 bat Udal ere sartuko dira zirkuituan, arduradunek adierazi digutenez. Euren nahia, denborarekin haztea da "Gipuzkoan sare sendo bat osatu arte".

Aparkamentuak

Udalak aparkaleku berrien gainean egin duen inkestak ez du erantzun handirik izan herritarren artean

Aparkaleku edo garaje bat esku-ratzeko garaian herritarrentzako eredu interesgarriena ezagutzeko asmoz, Udalak inkesta bat martxan jarri zuen joan den uztaillean. Guztira 2.300 liburuxka banatu ziren Udalak osasun zentro berria eta Tajamarreko errotondaren ondoan eraiki dituzten aparkalekuetatik gertuen dauden etxebizitzetan.

Partehartze txikia

Denera 55 erantzun jaso ditu Udalak. Parte hartu duten herritarren artean gehienek garajea erosteko interesa azaldu dute (61,82%). Alokairua nahia-gu duten pertsonen portzentaia



Gero eta kotxe gehiago egoteak aparkatzeko arazoa areagotzen du

%30,9 da, eta %7,28k kontzesioan nahiko luke.

Bestalde, gauetarako bono bat eskuratzeko aukerari dago-kionez, 20:00etatik 8:00etara

eta asteburuan aparkalekua ziurtatuta edukitzeko, %36,7k interesa izango luketela azaldu du eta %49,1k, berriz, ezeko erantzuna eman du.

Musika

Dinbi Danba taldeak ostiraleko jam sessionean parte hartu zuen



Ostiralean Jalgi kafe antzokian Dinbi Danda taldea eta Ana Valentina abeslaria izan ziren jam sessioneko gonbidatu bereziak. Abesti klasikoak oinarritzat hartu eta hoi en gainean inprovisaketak egin zituzten. Jazz eta blues soinuaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutako ziren guztiek. Modu ederra Euskararen VII. Maratoirako prestatzen hasteko. Hurbildutakoek dantza saio politak egiteko aukera izan zuten.

EUSKARAREN 7 MARATOIA

2008ko urriaren 18 eta 19



Guztion maratonia inoiz baino gehiago

Euskararen maratonia lehengo aldiz korritu eta gero, bukaerara iristean eta atzera begira jarrita zaila da neurriko eskertza bat egitea jendearen partetik horrenbesteko laguntza jaso eta gero. Eta sentsazioa daukat zorretan egongo naizela denbora luzean, ia ezinezkoa delako jende guztia lerro hauetan aipatzea.

Gora eta behera plazan zehar berrogei orduak egin eta gero, oraindik ere zaila egiten da sinestea nola mantendu den plaza ia etenik gabe jende beteta, larunbata goizetik txikiekin hasi eta igande bukaera arte. Duda barik, zortzikotearen ilusioak eta lanak mantendu gaitu eta aurkeztu diguten programatik segundu bat ere ez galtzeko gogoak. Ikuskizun osoa plazan jarraitzeko, otorduek eta tabernak erraztu digute aukera, kaka egiten ere maratonia ginelako. Otorduen aurre-ikuspen guztiak txiki geratu dira. Karpa jartzea erabaki genuenean, guk ere ez genekien zein neurritako plaza itxuratzin ari ginen eta oholtzan pantaila jartzeak lortu duen estetika eta interaktibitateak guztiok txunditu gaitu.

Maratonia prestatzen hasi ginenean lantaldeetan hilabeteak lehenago zegoen ilusioa ulertu ezin banuen ere, gaur goizean kafea hartzen nengoela, maratonia parte hartu duen hamalau urteko gazte baten amak kontatzen zidan, nola semeak kontuak atera eta esaten zion hurrengo maratonia hemezortzi urte izango zituela eta gustatuko zitzaioala zortzikoteko kide izatea. Hori zalantza barik, ilusioa pizten jarraitzen den seinale da. Zabala izan da oso jendearen parte hartzea, baina bereziki aipatu behar da gazte jendeak izan duen portaera eta jarri den ilusioa. Maratoniak, ni bezala beraiek ere harrapatu ditu.

Orain lau urte elkarteak kudeatzeko erronka hartu nuenean maratoni bat bizitzeko ilusioarekin lanean hasi nintzen eta ez nekien iritsiko nintzen, gisa honetako proiektuak luzeak direlako, eta gure maratonia ez delako bi egunetako kontu bat bakarrik. Nigan jarritako konfidantza eta jasotako babes eskertzea baino ez daukat beti gertu dagoen Ttakuneko zuzendaritzari.

Azkenik, ahaleginduko gara euskararen maratonia parte hartu duen guztion zerrenda osatzen. Izen propioz esker emate publiko bat egiteko eta maratoniak duen neurria paperean jasotzeko. Benetan, harro egotekoa da euskarak neurri honetan hitz egiten duenean. Baina momentuz, denoi... benetan mila esker.

Aitor Uriarte
Ttakuneko kudeatzailea

 **Beti euskararekin!**

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Material elektrikoa Argiak
Etxetresna elektrikoak
TB/Hi-Fi
Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

ANAIAK
JANTZI - DENDA

Euskararen alde
7. Maratoniarekin
batera!

Kale Nagusia 25 • Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

00



Euskararen 7. maratoniaren hasiera

Zortzikoteak txupinarekin ekin zion 40 orduetako txistularien laguntzaz lekukoa plazara eramanez. Dultzainariak, dantzariak, bertsolariak eta txalapartariak giroa zuten inaugurazio ekitaldian. M^o Jose Eizmendik, Ricardo Ortegak eta Ana Urchueguiak zinta moztu zuten.



02



Herriko ikastetxeetako haur eta gazteak izan ziren larunbat goizeko protagonistak.



Beti
euskararekin!

RPS 25/06

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziakzioa 12 hilabete arte



Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377
Ola Kalea, 10
Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa
www.dentalaldaz.com





Haurrek ondo pasa zuten suhiltzaileekin



Zabaletakoek lehenengo maratokia ospatu zuten, zortzikotearekin batera



Beti euskararen alde!

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

INQUIETUD

Neurriak 36tik... 60ra

943 370 290
Nagusia 49



Jendetza larunbat arratsaldeko ekitaldietan

Okendoko plaza eta frontoia lepo bete ziren Porrotx, Takolo, Mari Motots eta Kontu Kantoiren ekitaldiak ikusteko. Ondoren, Tapia eta Joanesek plaza dantzan jarri zuten.



Aste buru honetan Unai, Aitor eta Jokinek beste musikarik ez du inork jo.



Lasarte-Oriako preso politikoez ere Teresategira igotzeko aukera izan zuten.



FOTOKOPIAK ZURI-BELTZEAN
ETA
KOLORE DIGITALEAN
Faxeko zerbitzua. Inprenta azkarra
Koadernatzea-Plastifikatzea
Informatikako eta bulegoko materiala
Ehunkien estanzazioa
Publizitateko artikulak

Beti euskararen alde!

Kale Nagusia, 34 -behea1 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 930 • Faxa: 943 366 931
copilasarte@euskalnet.net

GIZARTE-ETXEA

Jangela duen 220m
karratuko lokala,
bilarrarekin, dardoekin.

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Ogitaratekoak
- Oilasko erreak (eramateko)



**Ezkontz ondorengo festak,
bataioak, urtebetetzeak...**

Zumaburu 15 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 368703

13



Gaztetxoek Okendo ingurua okupatu zuten larunbat iluntzean: dantza garaikidea, kanbpaldia, musika, batukada,...



Lasarte-Oria Bizirik, save Teresategi.



14



I. Urruzola aroztegia

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
(Errekato jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Aupa
Euskararen
7.Maratoia!



EUSKARAREN
MARATOIA 7



ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ!

16



Erotik erotikotik beste izan zuen emakume hauen gaueko arropen moda desfileak.



Aparatu erotikoen erakustaldiaren ondoren orgasmora iristeko aerobic saioa eskaini zuten.

17



Mihiluze erotikoa ez zuten ondoegi dantzatu mingaina lau parte hartzaileek.

Jon Iñaki Elexpuru eta Beñat Iguaran txapeldun
Lasarte-Oriako I. Bikotekako Bertso Pinalean aipatutako bikotea nagusitu zen Unai Muñoza eta Joxemari Agirretxeren aurrean. Saioa umoretsua izan zen.

18



Sabel dantza eskaini zuten bi dantzariak gerria ederki mugituz.



Ondoren Isabel dantza zortzikoteak.



Gaua bero bero joan zen.

EUSKARAREN VII. MARATOIAREN LAGUNTZAILE izan diren ELKARTEAK

Ttakun Elkarteak	Lasartearra Elkartea	Buruntz-Azpi Elkartea	Lan eta lan beti lan taldea	Gazte Bilgunea	Dantza eskola
eskerrak eman nahi	Intza Elkartea	Arrieskalleta Elkartea	Udal Musika Eskola	Amalur Trikitilari Eskola	Zabaleta Auzolan
dizkie Euskararen	Saustatxo Elkartea	Zero Sette Orkestra	Biyak Bat Elkartea	San Pedroko parrokia	DYA
VII. maratoiaren	Xirimiri Elkartea	Alboka Abesbatza	Xumela abesbatza	Oinatz taldea	Gurutze Gorria
antolaketa lagundu	Casa Extremadura Elk.	Erketz Dantza Taldea	Bertso Eskola	Ostadar Atletismo taldea	Kale Hezitzaileak
duten herriko elkarte	Palomo Linares Elk.	Landaberri ikastola	Jalgune	Ostadar K.F	Udal Euskaltegia
guztiei. Bi mila eta	Semblante Andaluz Elk.	Landaberri BHI	Aterpea Merkatarien	Intza Pilota Eskola	Takolo, Pirritx eta
zortzi esker.	Udaberri Elkartea	Sasoeta-Zumaburu ikast.	Elkartea	Landaberri Antzerki eta	Porrotx taldea

19



Behera behera, ordu aldaketa datorrela.



Uuuuuuuuuuuuu...



Gauean ere aurkitu zituzten piñaburuak Teresategin.



Berotzeko moduko maratoian ezin falta strepteasik.



Oholtzan eta plazan denek dantzatu zuten gozo gozo eta bero bero. Baita maratoiko musikariak ere.



Gaueko Itzalak taldearen soinuarekin amaitu zen ekitaldia.

20



A ze gaupasero koadrilla: Okendo plazatik Tariro Tariro, Teresategira. Piñaburu hartu, argazkia atera eta Goiegj jatetxe ra gosaltzera eta handik,...



Ttakunek eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera Euskararen VII. Maratoian parte hartu duten eta partaide izan diren herritarrei.

ESKERRIK ASKO eguraldi ona enkargatzeagatik; Teresategiko bidea garbitzeagatik; markatzeagatik; banderina grapatzeagatik; kartelak egiteagatik; maratoian korrika egiteagatik; Teresategira igotzeagatik; ikusle iza-teagatik; txalo egiteagatik; korritzeagatik; argazkiak ateratzen aritzeagatik; emozionatzeagatik; zerbitzatzen aritzeagatik; mahaia muntatzeagatik; txosnako txandak egiteagatik; jauzi egiteagatik; hesiak jarri eta kentzeagatik; oholtza dekoratzeagatik; Bero-bero dantzatzeagatik; abesteagatik; ekitaldiak prestatzeagatik; barre egiteagatik; puzkarrak botatzeagatik; manikiak uzteagatik; azokan parte hartzeagatik; magia egiteagatik; errekorak hausteagatik; negar egiteagatik; muxuak emateagatik; irrintzia botatzeagatik; pixa komunean egiteagatik (frontoian egiteagatik ez); tripa betetzeko janaria egiteagatik; nikiak saltzeagatik; ; nonbaiteko zerrendan jartzea ahaztu zaigunari... maratoiaren parte izan zareten guztioi!



Biyak Bat elkarteak sasoiko daudela erakutsi zuten. Larunbatean gimnasia egin zuten, eta igandean berriz, abestu. Segi horrela!



Endika Garziak 20 segundutan hobetu zuen Joxean Alberdiren marka. Lau urte barru joxean bera saiatuko da berririo!!



Aurtengo edizioan Zabaleta auzoak irabazi zuen proba. Orain zortzi urte Kaxkarrok irabazi zuen, ea ikusten dugun desenpatea zortzigarren edizioan!!



Arrieskalleta elkarteak irabazi zuen babarrun txapelketa. Nahiko lan izan zuen epai-mahaia erabakitzen!!!

Maite

BETELU

B Gestoria

B Aholkularitza

B Aseguruak

B Etxebizitzan

administrazioa

B Inmobiliariako

zerbitzuak

**BETI EUSKARAREN
ALDE!**



Aralar plaza 6, behea
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Aralar plaza 4, behea
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117





30



32

Puzkar sinfonia izan genuen zortzikotearen eskutik babarrun janaren ondoren. Ia-ia atzean grabatzen zegoen Edu ito zuten! Eskerrak mahaietan zeuden beste guztiak ez ziren berdin hasi!

Lan ederra egin dute maratoin zehar soinu, argi, kamera, pantaila, ordenagailu... eta abar luze bateko teknikoek. Bejon deizuela!



33

Euskadiko Kutxa

Beti euskararen alde!

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Kale Nagusia 21
Tel.: 943 362073



34



Joseba Ubegun eta Igor Gonzalez izan ziren mus txapelketako irabazleak.



35



37



Okela eta Etxezarreta harategien eskutik txekor ederra afaldu zuten. Postrea berriz, Goiegi jatetxeak eskaini zuen.



Baietz 7 Maratoi probako azken maratonia Ostadarrek bete zuen. Erronka bete zen, 7 maratoiak korritu ziren!!

MAPFRE



**CAJA MADRID ek
delegatutako bulegoa**

Loyarte aseguruak S.L

Geltoki kalea 8 • Tel.: 943 360268 • Faxe: 943 360546 • LASARTE-ORIA



**Euskararen
7. Maratoiarekin
batera
euskararen alde!**



Maratoiko 'jefea'... muxu batzuk jaso zituen lřakik maratoiean. Merezi ere bai.!



39



Teresategira azkeneko txanda Solaskide egitasmoa Idoiak eta Aliciak egin zuten.



Eusko Irudiak pieza amaituta, zortzikotekoek hartu zuten hitza. Beraien agurra eta 40. ordua bete ondoren, Bero-bero dantzatzu eman zitzaion amaiera Euskararen VII. Maratoiari.



40



*Eskerrik asko
Euskararen VII. Maratoiko
partaide izateagatik!*



LASARTE-ORIAKO
UDALA



Geltoki kalea 4

Tel.: 943 377024

LASARTE-ORIA



Euskararen
7. Maratoiarekin
batera
euskararen
alde!

TABERNA *Buenetxea* **KAFETEGIA**

*Beti euskararekin
batera!*

*Ezkontza ondorengo festa
luzatu dezakezu gurean.*

Proba itzazue
batido naturalak
gure terrazetan.

Txokolatea
txurroekin

Pintxoetan
aukera zabala

Aprobetxatu
zure apostua
hemen egiteko.



Infusio
naturalak

Kafe bereziak:
*Irlandesa
eskoza
kaputxinoa
bonboia*

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 363640 • LASARTE-ORIA



Astehenean mus txapelketa jokatu zuten. Irudia asteartekoa da, tute txapelketakoa.



Haurren ere izan zuten gozatzeko aukera, batez ere Flipyren showarekin.

Biharamuna izan dute Semblante Andaluz elkarteko kideek

Igandean amaitu ziren Aste Kulturalako ekitaldiak: musika, bazkariak, jolasak, hitzaldiak...

TXINTXARRI

Seigarren urtez, Semblante Andaluz Elkarteak Aste Kulturala ospatu du. Pilarika egunean, urriaren 12an, ekin eta igande gauean Ntr. Sra. del Rocío elkarteko amabitxiari abestutako salbe rozieroarekin amaitu zuten.

Tartean, hainbat ekitaldi egin dituzte, hala nola, argazki erakusketa, jokuak, hitzaldiak edo musika, baita txapelketak ere.

Txapelketen emaitzak

Asteazken zehar jokatu ziren lehiaketa desberdinak. Mahai jokoetan musean Aurelio Martin eta Antonio Ruben gailendu ziren eta tutean Vicente izan zen irabazlea.

eta patata tortila onena Antonio Rubenena izan zen.

Elkartekoak pozik agertu dira txapelketa desberdinetan parte hartu duten jendea ugarria izan delako.

Ekitaldi eta hitzaldiak

Bestalde, pailazoen arrakasta azpimarratu dute eta zuzenketak egin dute, izan ere, Patxin eta Pastinen ordeztu, Flipyren showa ikusi baitzuten egoitzara hurbildu ziren haurrek.

Hitzaldiak interesgarriak izan zirela ere azpimarratu dute. Batetik ostegunean bizkarreko arazoei buruzko hitzaldi praktikoa egin zuen Marmier doktoreak. Bestetik ostiralean elkartearen presidentek Andaluziar gaiei buruz jardun zen eta igande arratsaldean flamenkoa izan zen hizpide. Azken honetan, gainera, adibide musikalak egin ziren.

Baina ez zen hau izan flamenko, segidillak eta koplak entzuteko aukera bakarra, larunbatean *A mi aire* taldeak emanaldi ezin hobea eman baitzuen.

Beraz, ez dute aspertzeko astirik izan elkarteak. Amaitu da Aste Kulturala eta ajea pasa ondoren, balorazioa egiteko momentua iritsi zaie antolatzaileei.

Momentuz, dena jaso eta balorazioekin amaitzeko asmoa dutela esan digute, eta zazpigarren asteak antolaketaz hurrengo urtean hitz egingo dutela. Momentuz, nahikoa izan dute, beraz, hurrengo urtera arte. •



A mi aire taldeak ikuskizun ederra eskaini zuen larunbat arratsaldean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

www.izarrabitxitegia.com



IZARRA
BITXITEGIA

BETI EUSKARRAREN ALDEI!

Geltoki kalea 19
Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g
Tel.: 943 364945

IPARJOY A.I.E.

